

---

Eguneraketa  
2019/01/31  
Actualización

# §E5

**LEY 5/2015, DE 25 DE JUNIO, DE DERECHO CIVIL VASCO.**

**5/2015 LEGEA, EKAINAREN 25EKOA, EUSKAL ZUZENBIDE ZIBILARI BURUZKOA**

## LEY 5/2015, DE 25 DE JUNIO, DE DERECHO CIVIL VASCO.

(BOPV nº 124, de 3 de julio de 2015)

### EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

I

La Ley vasca 3/1992, de 1 de julio, fue la primera norma que, después del Fuero Nuevo de Bizkaia de 1526, constituyó una regulación del Derecho civil vasco redactada por juristas vascos y aprobada por un órgano legislativo vasco.

El Parlamento Vasco contó con la competencias reconocida en el artículo 149, 1, 8.º de la Constitución española de 1978 que reserva al Estado la facultad legislativa en materia civil, pero sin perjuicio de la conservación, modificación y desarrollo por las comunidades autónomas de los derechos civiles, forales o especiales, allí donde existan. Esta disposición constitucional fue concretada en el Estatuto de Autonomía del País Vasco a tenor de cuyo artículo 10, apartado 5, es competencia exclusiva de la Comunidad Autónoma del País Vasco la conservación, modificación y desarrollo del Derecho civil, foral y especial, escrito o consuetudinario, propio de los territorios históricos que integran el País Vasco y la fijación del ámbito territorial de su vigencia.

Por otra parte, no puede olvidarse tampoco el importante impulso que recibió dicho texto respecto al territorio de Gipuzkoa, con ocasión de su posterior modificación y ampliación por la Ley 3/1999, de 26 de noviembre, de modificación de la Ley del Derecho Civil Foral del País Vasco, en lo relativo al Fuero Civil de Gipuzkoa, hito equivalente en el Derecho guipuzcoano a lo que supusiera el texto de 1992 en los otros dos territorios, en tanto que siempre fueron escasas las fuentes escritas de aquél ya que la fuente esencial del derecho privado de dicho territorio ha venido siempre de la mano del derecho consuetudinario.

Transcurridos más de tres décadas desde la entrada en vigor de los preceptos constitucionales y estatutarios citados, la experiencia legislativa comparada de las comunidades autónomas con Derecho civil foral o especial propio y la jurisprudencia constitucional han asentado una firme base para el reconocimiento competencial de la capacidad legislativa de las asambleas autonómicas en materia de derecho civil foral.

Por esta razón, esta ley ha podido elaborarse con plena libertad y sin plantearse las dudas competenciales en las que se desarrolló la de 1992, y pudiendo aspirar a mirar más allá, siempre dentro de los límites delimitados por la jurisprudencia constitucional, el buen sentido y el mejor provecho de todos. Y todo esto, siempre con la clara idea de mantener vivo y aprovechar el legado del Derecho tradicional y consuetudinario, pero con la vista puesta en el mundo de hoy y en un país como el vasco, que tiene una gran actividad comercial e industrial, y no

## 5/2015 LEGEA, EKAINAREN 25EKOA, EUSKAL ZUZENBIDE ZIBILARI BURUZKOA

(124 zenbakidun EHAA, 2015eko uztailaren 3koa)

### ZIOEN AZALPENA

I

Eusko Legebiltzarrak ondutako uztailaren 1eko 3/1992 Legea izan zen lehena, Euskal Zuzenbide Zibilaren arauketa gauzatzeko orduan, 1526ko Bizkaiko Foru Berriaren ostean. Lege hori euskal legelariet idatzi zuten eta euskal organo legegile batek onetsi zuen.

Eusko Legebiltzarrak ahalmenak zituen lege hori onesteko, hain zuzen ere, 1978. urteko Espainiako Konstituzioaren 149.1.8 artikulua Horrek, Estatuaren mesedera gorde bazuen ere gai zibiletan legeak egiteko ahalmena, salbuespenak ezarri zituen; besteak beste, autonomia-erkidegoek zuzenbide zibilak, forudunak nahiz bereziak, iraunarazi, aldarazi eta garatu ahal izango dituzte, halakoak direnetan. Konstituzioaren xedapen horretan oinarri harturik, Euskal Herriaren Autonomia Estatutuak arautu zuen, 10.5 artikuluan, Euskal Autonomia Erkidegoaren eskuduntza beregaina, honetara zuzendua: Euskal Herria osatzen duten herrialde historikoen zuzenbide zibil foral eta berezi idatziaren nahiz ohiturazkoaren kontserbazio, aldatze eta bilakaera, bai eta beraren indarraren lurralde-barrutiaren finkapena ere.

Beste alde batetik, ezin da ere ahaztu testu horrek bultzada handia jaso zuela Gipuzkoako lurraldeari dagokionez geroagoko aldatze eta handitze batekin, zeina ekarri baitzuen azaroaren 26ko 3/1999 Legeak, Euskal Herriko Foru Zuzenbide Zibila Gipuzkoako Foru Zibilari dagokionean aldatzekoak. Lege horrek mugarri bat jarri zuen Gipuzkoako Zuzenbidean, 1992ko testuak beste bi lurraldeetan jarri zuenaren parekoa, kontuan hartzen bada urriak izan direla beti Gipuzkoako Foru Zibilaren idatzizko iturriak, ohiturazko zuzenbidea izan delako beti lurralde hartako zuzenbide pribatuaren funtsezko iturria.

Hogeita hamar urtetik gora pasa dira Konstituzio eta Estatutua indarrean jarri zirenetik, eta zuzenbide zibil foral edo berezi propioa duten autonomia-erkidegoen legegintza-esperientzia alderatuak eta jurisprudentzia konstituzionalak oinarri sendo bat jarri dute biltzar autonomikoei eskumenak aitor dakizkien zuzenbide zibil foralean ahalmen legegilea baliatzeko.

Horregatik, lege hau prestatzeko orduan askatasun osoz eta 1992ko Legea egiterakoan izan ziren eskumen-zalantzak planteatu gabe jokatu ahal izan da, baita begiradaren mugak zabalduz ere, jurisprudentzia konstituzionalak, zentzu onak eta denen hobe beharrak ezarritako lerroen barruan. Helburua izan da, beti, bizirik mantentzea eta aprobetxatzea tradiziozko eta ohiturazko zuzenbidearen legatua, baina aldi berean begirada jartzea gaurko munduan eta egungo euskal herrian, non merkataritzak eta industriak pisu handia daukaten eta zein ezin den

puede identificarse con la sociedad rural de hace unos siglos a la que la formulación original de aquel derecho respondía.

Como ocurre con otras peculiaridades del País Vasco, que mantienen como fondo esencial el Derecho castellano y europeo, el texto debe ser interpretado junto al Código Civil español pues no pretende agotar todo el contenido de las viejas instituciones civiles que en buena parte se mantienen vivas en la forma en que las regula el Código Civil, el cual tiene un carácter de derecho supletorio salvo en aquellos extremos, como la troncalidad, que son instituciones exclusivas de Bizkaia, Llodio y Aramaio.

El Derecho civil vasco es un derecho europeo y está inserto, en el mismo ámbito cultural del Derecho europeo occidental en el que, desde la Edad Media, se recibió ampliamente el Derecho romano sobre las raíces del Derecho autóctono, sin perjuicio de que éste contiene instituciones a las que no es aplicable el Derecho romano. En consecuencia, el Derecho castellano, muy inspirado en el Derecho romano, colmaba las lagunas del derecho propio de forma compatible con las importantes precisiones del Derecho vasco que alteran el derecho común, y que esta ley pretende conservar y desarrollar.

Asimismo, a la hora de interpretar esta ley debe tenerse también en cuenta el derecho comunitario aplicable, en la medida en que afecta también de manera incipiente pero creciente al derecho privado, y por tanto también a las materias reguladas tradicionalmente por el Derecho foral. Tal es el caso del Reglamento 650/2012 del Parlamento y del Consejo de la Unión Europea, de 4 de julio, relativo a la competencia, la ley aplicable, el reconocimiento y la ejecución de las resoluciones, a la aceptación y la ejecución de los documentos públicos en materia de sucesiones mortis causa y a la creación de un certificado sucesorio europeo.

Finalmente, no pretende esta ley agotar ahora todo el posible campo de desarrollo del Derecho civil foral vasco, que será paulatinamente ampliado a nuevos campos por otras leyes que puedan ser dictadas por este Parlamento en función de las diferentes necesidades y las demandas sociales de cada momento, dentro del marco competencial arriba descrito, así como, tal y como ya se ha dicho, por la vía de la costumbre y los principios generales del Derecho civil foral, como fuentes del Derecho. Ahora debemos extender y profundizar en nuestro Derecho civil, al igual que lo han hecho en otras comunidades autónomas, y conseguir en un plazo temporal apropiado una formulación lo más completa posible del Derecho civil vasco.

## II

El título preliminar aborda la cuestión de las fuentes del Derecho civil foral vasco para, sin apartarse sustancialmente del esquema de fuentes propio y vigente, responder a las necesidades de seguridad jurídica y certidumbre sobre el alcance e interpretación de las normas aplicables, desde una perspectiva adaptada a los tiempos actuales y a la legislación procesal y planta judicial existentes. Así, se aborda una regulación más completa de la costumbre y de los principios generales del Derecho, desde la constatación de que, con la excepción del Fuero

identifikatu duela mende batzuetako landa-gizartearekin, zuzenbide honen jatorrizko formulazioak erantzuten zion gizarte harekin.

Euskal Herriaren beste ezaugarri batzuekin gertatzen den bezalaxe, funts alboraezina da Gaztelako eta Europako zuzenbidea, eta horrexegatik testua interpretatu behar da Espainiako Kode Zibilarekin batera, testu honek ez baitu xede aspaldiko erakunde zibilen eduki osoa agortzea, horiek bizirik baitaude Kode Zibilak arautzen dituen moduan. Kode Zibil hori indarrean dago testuaren zatirik zabalenean eta, kasurik okerrenean ere, zuzenbide ordeztailerean izaera du, salbu eta erakunde beregainak arautzen direnean, hala nola tronkalitatea, Bizkaian, Laudion eta Aramaion aplikatzen dena.

Euskal Zuzenbidea zuzenbide europarra da eta sarturik dago mendebaldeko zuzenbide europarraren esparruan. Jakina denez, Erdi Arotik barruratu zen Zuzenbide Erromatarra lekuan lekuko zuzenbidearen sustraien gainean, nahiz eta Euskal Zuzenbideak badituen erakunde batzuk non Zuzenbide Erromatarra ez den aplikagarri. Ondorioz, Gaztelako Zuzenbidea, Zuzenbide Erromatarren eragin nabarmena zuena, bertako zuzenbidearen hutsuneen betegarri zen. Nolanahi ere, badira Euskal Zuzenbidean ñabardura esanguratsuak, zuzenbide erkiea aldarazten dutenak eta lege honek gordetzen eta garatzen direnak.

Era berean, lege hau interpretatzeko orduan kontuan izan behar da ere aplikagarria den Zuzenbide Komunitarioa, hasi baita eragina izaten, eta gero eta gehiago eragingo baitu, zuzenbide pribatuan, eta beraz baita zuzenbide foralak arautu ohi zituen gaietan ere. Hor da, adibidez, Europar Batasuneko Legebiltzarraren eta Kontseiluaren uztailaren 4ko 650/2012 Erregelamendua, xedapenen eskumen, lege aplikagarri, errekonozimendu eta egikaritzari buruzkoa, mortis causa oinordetzen arloko dokumentu publikoen onarpen eta egikaritzari buruzkoa eta oinordetza-ziurtagiri europar bat sortzeari buruzkoa.

Azkenik, lege honen asmoa ez da agortzea orain Euskal Foru Zuzenbide Zibilak izan dezakeen garapen-eremu guztia. Zuzenbide hori poliki-poliki hedatuko da eremu berri batzuetara Legebiltzar honek onesten dituen beste lege batzuen bidez, une bakoitzeko beharrazanei eta eskaera sozialei erantzute aldera gorago azaldutako eskumen-esparruaren barruan, eta baita, gorago esan den bezala, ohituraren bidez eta Foru Zuzenbide Zibilaren printzipio orokorren bidez ere, Zuzenbidearen iturri diren heinean. Orain gure Zuzenbide Zibila zabaldu eta sakondu beharra daukagu, beste autonomia erkidego batzuek egin duten bezala, eta Euskal Zuzenbide Zibilaren formulazio ahalik eta osatuena lortu, epe egoki batean.

## II

Atariko tituluan Euskal Foru Zuzenbide Zibilaren iturrien kontua jorratzen da. Funtsean ez da aldutzen iturrien eskema propioetik eta indarrean dagoenetik, baina erantzuna eman nahi zaio aplikagarriak diren arauen irismen eta interpretazioari buruz segurtasun juridikoa eta ziurtasuna izan beharri, gaurko garaira eta egungo legeria prozesalera eta antolaketa judizialera egokitutako ikuspuntuarekin. Horrela, arauketa osoagoa eman zaie ohiturari eta zuzenbidearen printzipio orokorrei, aintzat harturik Euskal Herrian oinordetza-zuzenbidea beti izan dela ohitu-

de Ayala, y de las normas sobre troncalidad y algunas otras aisladas normas escritas en Bizkaia, el Derecho sucesorio en el País Vasco fue siempre consuetudinario. En lo demás, los viejos documentos atestiguan que se aplicaron normas muy similares en los tres territorios históricos y que incluso los poderes testatorios y el testamento mancomunado se usaron con frecuencia fuera de Bizkaia, especialmente en Gipuzkoa.

A continuación, se afirman unos principios básicos, resaltando el carácter solidario del derecho de propiedad en nuestras viejas leyes y la afirmación categórica de la libertad civil, que hace presumir que todas las leyes son dispositivas.

Pero la innovación más importante de este título introductorio se encuentra en la regulación de la vecindad civil vasca. Hasta ahora no existía sino la vecindad local que impedía, por ejemplo, acudir a una inexistente vecindad vasca para regular los efectos de la ley de parejas de hecho que hubo de refugiarse en la vecindad administrativa.

Era preciso mantener una vecindad común para todos los vecinos de la Comunidad Autónoma Vasca, una vecindad como la crea y regula el artículo 11 de este texto y que es compatible con la vecindad local diferente que pueden ostentar para algunas instituciones los vecinos del valle de Ayala, los vizcaínos o los gipuzcoanos.

El texto pretende tener vigencia en toda la Comunidad Autónoma Vasca. Sus disposiciones han de ser aplicadas en todo el territorio porque, aunque es cierto que históricamente siguieron Álava, Gipuzkoa y Bizkaia distintos caminos, son escasas, y en muchos casos más formales que materiales, las diferencias en el amplio campo de la costumbre foral.

Esta circunstancia ha permitido redactar un texto unificado que puede ser aceptable para todos los vascos, salvo en los casos de leyes y costumbres muy diferenciadas, como ocurre con la libertad de testar ayalesa, o la troncalidad y el régimen de comunidad de bienes en el matrimonio vizcaíno.

Las diferencias no impiden regular la existencia de una vecindad civil común, la vecindad vasca, un concepto no regulado en la ley anterior y, sin el cual, es difícil atender a la resolución de los conflictos de leyes.

### III

El título I se inicia con la declaración de unos principios de Derecho patrimonial entre los que se incluye una referencia en el artículo 13 a los arrendamientos rústicos, que en los siglos XIX y XX se extendieron mucho por los caseríos vascos, y que tenían carácter indefinido, salvo en casos de falta de pago de la renta. Las leyes dictadas sobre este extremo por el poder central pusieron muchas veces en peligro estos arrendamientos que, cuando se trata de caseríos, tienen la particularidad de unir la ocupación de una vivienda con el disfrute de unas tierras de labor, por lo común anejas.

El arrendamiento rústico de los caseríos vascos es una institución con caracteres propios, quizá más próxima a los censos, y el texto quiere mantener su peculiaridad, aunque el desarrollo de la institución es tarea de los po-

razkoa, salbu eta Aiarako Forua eta Bizkaiko tronkalitate arauak eta idatzizko beste arau solte batzuk. Gainerakoan, dokumentu zaharrek erakusten dute oso antzeko arauak aplikatu zirela hiru lurralde historikoetan eta are testamentu-ahalordeak eta testamentu mankomunatuak sarri erabili zirela Bizkaitik kanpo, bereziki Gipuzkoan.

Ondoren, printzipio orokor batzuk ezartzen dira. Bertan agerian uzten da jabetza-eskubideak izaera solidarioa zeukala gure lege zaharretan eta kategorikoki baieztatzen da askatasun zibila, zeinak pentsarazten duen lege guztiak esku-emaileak direla.

Berrikuntzarik nabarmenena, hala ere, euskal auzotasun zibilaren arauketan datza. Orain arte ez zegoen tokiko auzotasuna baizik eta horrek eragotzen zuen, berbarako, izatezko bikoteen ondorioak arautzeko euskal auzotasuna ardatz moduan hartzea, halakorik ez zegoelako. Hainbatetik, auzotasun administratiboan babestu da izatezko bikoteen araubidea.

Premiazkoa zen, hortaz, auzotasun erkide bat izatea Euskal Autonomia Erkidegoaren herritar guztientzat. Halakoa sortzen eta arautzen du testu honen 11. artikulua, hori bera bateragarria dela tokian tokiko auzotasunarekin. Azken hori da, izan ere, erakunde batzuen aplikaziorako Aiarako auzotarrek, bizkaitarrek edota gipuzkoarrek dutena.

Testuaren jomuga da, bestalde, indarra izatea Euskal Autonomia Erkidego osoan. Horren xedapenek aplikagarriak behar dute izan lurralde osoan. Egia da, Araba, Gipuzkoa eta Bizkaia bide desberdinetatik joan zirela, baina egia da, orobat, euren arteko desberdintasunak urriak eta kasurik gehienetan formalak direla, ez funtsezkoak, betiere foru-ohituraren esparru zabalean.

Egoera horrek ahalbidetu du testu bateratua egitea, herritar guztientzat onargarri izan daitekeena, lege eta ohitura oso bestelakoetan izan ezik, hala nola testamentua egiteko askatasuna Aiaran, edo tronkalitatea eta ondasunen komunikazio-araubidea bizkaitarren arteko ezkontzan.

Desberdintasunek ez dute saihesten auzotasun zibil erkide bat moldatzea, hain zuzen ere euskal auzotasuna, aurreko legeak arautu ez zuena. Bistan da hori gabe zaila dela lege-gatazkak konpontzea.

### III

I. titulua hasten da ondareari buruzko zuzenbidearen printzipioak adieraziz. Horien artean, 13. artikuluan landa-errendamenduak aipatzen dira, zeinak asko hedatu baitziren XIX. eta XX. mendeetako euskal baserrietan. Epeari dagokionez, mugagabeak ziren, errentaren ordainketan huts egin ezean. Botere zentralak horri buruz aldarrikaturiko legeek sarritan jarri zituzten zalantzan landa-errendamendu horiek, aintzat hartzeke baserrien kasuetan etxebizitzaren erabilera lotzen dela lursailen jorraketa-ekin, gehienetan bigarren hauek lehenaren erantsiak direla.

Euskal baserrien landa-errentamendua berezko izaera duen erakundea da, beharbada zentsuetatik hurbil da goena, eta testuak berezitasun hori gorde nahi du, nahiz eta erakundearen garatze bidea botere publikoaren zeregi-

deres públicos y depende de decisiones políticas.

La ley pretende también regular las sociedades civiles que son la expresión de un viejo espíritu asociativo que perdura en nuestros días en las cofradías, hermandades y mutualidades y no ha sido objeto de regulación propia.

## IV

El título II se ocupa de las sucesiones. Con la excepción del Fuero de Ayala y de las normas sobre troncalidad en Bizkaia, el Derecho sucesorio en el País Vasco fue siempre consuetudinario. En lo demás, los viejos documentos atestiguan que se aplicaron normas muy similares en los tres territorios históricos y que incluso los poderes testatorios y el testamento mancomunado se usaron con frecuencia fuera de Bizkaia. Por esta razón, se establece una redacción única, acompañada de las normas especiales para Bizkaia y Ayala, ampliándose de esta forma la libertad del testador.

El testamento «hil buruko», que es un testamento en peligro de muerte, bien regulado en el Fuero de Bizkaia, se hace extensivo a los tres territorios históricos, con la idea de ampliar el Derecho civil común a todos ellos.

El Código Civil veta expresamente el testamento mancomunado, inspirándose en la dura prohibición del Código alemán, pero los recelos que inspiraba se van reduciendo en las leyes modernas. El Fuero de Bizkaia y la ley vasca de 1992 mantienen su vigencia, aunque solamente entre cónyuges.

En cuanto a la sucesión forzosa, hay grandes divergencias en nuestro Derecho histórico que convendría reducir en todo lo posible. El Fuero de Ayala mantiene la total libertad de testar que, dado el arraigo que esta libertad tiene en esa zona, se cree prudente mantener.

Por lo demás, rige en muchos lugares el sistema de legítimas del Código Civil, salvo en Bizkaia, en la que la legítima, tomada de la Ley de Partidas que regía en Castilla, contraria a nuestra tradición, era de los cuatro quintos de la herencia, pese a que el Código Civil la hubiera reducido a dos tercios, uno de legítima estricta y el otro de mejora.

El texto quiere establecer una legítima única de un tercio del patrimonio, para todo el País Vasco. Se estima que esta decisión es muy importante y contribuye mejor que cualquier otra a dar unidad al Derecho vasco y a aproximarlos a otras legislaciones europeas.

La única salvedad es la que, una vez más, opera en el valle de Ayala, a fin de respetar su libertad absoluta de testar al otorgar testamento.

El testamento por comisario es una de las piezas básicas de la sucesión en Bizkaia, a la que esta ley hace ligeras matizaciones. Los poderes para testar permanecen en esta ley en toda su amplitud, aunque siempre en testamento ante notario y los cónyuges o las parejas de hecho pueden otorgarlos en capitulaciones o en pacto sucesorio. La novedad más destacada que se introduce es la equiparación entre el cónyuge viudo y el miembro superviviente de la pareja de hecho para acomodarse a la normativa vigente.

na izan eta erabaki politikoan menpe egon.

Legeak, orobat, sozietate zibilak arautu nahi ditu, horiek aspaldiko espiritu baten adierazleak baitira, besteak beste gizakumeak elkarrekin jardutekoa. Halakoak irauten du egunotan ere, kofradia, ermandade eta mutualitateetan eta ez da arauketa propio baten objektua izan orain arte.

## IV

II. tituluak oinordetzak ditu araugai. Aiarako forua eta Bizkaiko tronkalitateari buruzko arauak salbuetsita, Euskal Herriko oinordetza-zuzenbidea beti izan da ohiturazkoa. Gainerakoan, agiri zaharrek adierazten dute arau bertsuak aplikatu zirela hiru herrialde historikoetan eta testamentu-ahalordeak eta alkarpoderosoak eta testamentu mankomunatuak sarri erabili zirela Bizkaitik kanpo ere. Hori dela eta, idazkera bakar bat egin da, Bizkaiko eta Aiarako arau bereziak jarraian datozela. Horretara jarrita, testamentu egilearen askatasuna zabaltzen da.

Hilburukoa heriotza-arriskuan egindako testamentua da eta egoki dago araututa Bizkaiko Foruan. Hainbatez, arauketa hori hedatzen da hiru herrialde historikoetara, Zuzenbide Zibil erkidea aplikagarri izan dakien.

Kode Zibilak bereziki debekatu zuen testamentu mankomunatuak, Alemaniako Kodearen debeku gogorra aintzat harturik, baina horrek sortzen dituen susmoak eta erreze-loak gutxitzen joan dira araubide modernoetan. Bizkaiko Forua eta 1992. urteko euskal legeak haren indarra gorde dute, senar-emazteen artean soil-soilean bada ere.

Nahitaezko oinordetzari dagokionez, desberdintasun handiak dira gure zuzenbide historikoan. Horiek bateratze bidean jartzea komenigarri izango litzateke. Aiarako Foruak testamentu egiteko askatasun osoa gordetzen du. Aieran ere, ikusirik horrek Aiaran dituen sustrai sendoak, uste da zuhurra dela erakunde hori gordetzea.

Gainerakoetan, agerikoa da leku askotan Kode Zibilaren seniparte-sistema dagoela indarrean, Bizkaian izan ezik. Bertan senipartea hartu zen Gaztelan indarrean zegoen Partiden Legetik, hori ere gure tradizioaren aurkako zela, eta jarauntsiaren lau bostenekoa zen, Kode Zibilak bi herenetara murriztu arren, bat seniparte hetsiarena eta bestea hobekuntzarena.

Testuak seniparte bakarra ezartzen du, ondarearen heren batena, Euskal Autonomia Erkidego osorako. Uste izan da erabaki hori oso garrantzitsua dela eta laguntzen duela, beste edozerk baino gehiago, Euskal Zuzenbideari batasuna ematen eta Europako legeriei buruz hurreritzen.

Salbuespen bakarra da, nahitaez, Aiarako haranarekin egin beharrekoa, testamentu egiteko orduan erabateko askatasuna gorde behar baita.

Alkarpoderosoa edo komisario bidezko testamentua oinarrizko osagaia da Bizkaiko oinordetzan. Lege honek ñabardura batzuk berruztatzen ditu horretan. Testamentu egiteko ahalordeak euren osotasunean gordetzen ditu, betiere notarioaren aurreko testamentuan egiten badira. Ezkontideek edo izatezko bikotekideek ezkontza hitzarmenean edo oinordetza itunean egin dezakete halakoa. Berrikuntzarik nabarmenena izan daiteke, beharbada, ezkontide alargunaren eta bizirik dirauen izatezko bikotekidearen arteko berdintasuna, egungo legeriaren aginduak betetzeko asmoz.

Una de las instituciones más características del Derecho privado de Bizkaia, que también dejó su huella en Navarra e incluso en las costumbres de Labourd es la troncalidad, que no aparece definida para Gipuzkoa y Álava, porque estos territorios nunca redactaron sus propias leyes. Pero en Bizkaia es recogida en el Fuero y se desarrolla ampliamente en la ley vasca de 1992. A principios del siglo XX, la troncalidad era probablemente la institución más típica y la más apreciada por los juristas vizcaínos.

La evolución de la actual sociedad parece poco favorable a las instituciones de este tipo, aunque su arraigo en Bizkaia hace aconsejable mantenerla.

La ley mantiene viva en Bizkaia la institución de la troncalidad y el ejercicio del derecho de saca foral cuando se enajenen los bienes troncales. De la misma forma, pretende aclarar y facilitar las formas de ejercicio de este derecho y, en cierto sentido, suavizar sus aplicaciones que pueden parecer excesivas. La innovación más importante es que la tradicional nulidad absoluta de los actos realizados a favor de extraños a la troncalidad, muta en una nulidad relativa o anulabilidad limitada en el tiempo, pues ha de ejercitarse dentro del plazo de cuatro años desde la inscripción en el Registro de la Propiedad.

En cuanto al ejercicio del derecho de saca cuando se enajena un bien troncal a un extraño, queda limitado cuando lo elimina del suelo urbano o urbanizable sectorizado. Posibilita además dos formas de ejercicio de este derecho, una directa y otra mediante anuncios, ambas amparadas en la fe notarial, para hacer el llamamiento a los parientes tronqueros.

El texto regula también el derecho del arrendatario de un caserío a la adquisición de la vivienda arrendada, cuando el contrato tenga más de cuarenta años de vigencia. La singularidad del caserío vasco, que en el arrendamiento de la finca incluye de ordinario la vivienda familiar, justifica que el caserío tenga también asignado un derecho de adquisición preferente que se regula en el artículo 86 de la ley.

Se recoge de forma más amplia el Fuero de Ayala, al que por tradición se suele asignar un solo artículo y aquí se desarrolla de forma más amplia por las aportaciones de juristas alaveses, referidas a la regulación del usufructo poderoso, con sus modalidades ayalesas.

Y asimismo, desarrolla el texto las normas sobre la ordenación sucesoria del caserío guipuzcoano, definido en el artículo 96 y la obligación legal de los adquirentes de mantener el destino del caserío.

Los pactos sucesorios se regulan ampliamente en este título. Pese a la prohibición del Código Civil, que impedía expresamente el pacto de suceder, la institución estaba viva en Bizkaia, sobre todo en los pactos matrimoniales, y la prohibición no se justifica hoy por buen número de juristas, por lo que se hace necesario dedicarle cierta atención para establecer normas de garantía.

Bizkaiko erakunderik esanguratsuen, zuzenbide pribatuari dagokionez, tronkalitatea da. Horren lorratza ere begien bistakoa da Nafarroan eta Lapurdiko ohituretan. Aldiz, Gipuzkoan eta Araban ez dago araututa, herrialde horiek inoiz ere ez baitzituzten euren legeak idatzi. Bizkaian bilduta dago Foruan eta zabal garatuta 1992. urteko legean. XX. mende hasieran, tronkalitatea zen erakunderik bereizgarriena eta estimatuena, bizkaitar legelarien aldetik.

Egungo gizartearen bilakaera, ostera, mota honetako erakundeen aldekoa ez da. Nolanahi ere, erakunde horrek Bizkaian dituen sustraiak aintzat hartuta, zuhurtasunak aholkatzen du gordetzea.

Testuak bizirik gordetzen du Bizkaian tronkalitatearen erakundea eta foru-sakaren egikaritzea ondasun tronkalak besterentzen direnean. Testuak eskubide horren egikaritzea argitu eta erraztu egin nahi du eta, modu batean zein bestean, horren aplikazioetan gerta daitezkeen gehiegikeriak arindu. Hartara, berrikuntzarik irtenena da aspaldiko deuseztasun erabatekoa, tronkalitate kanpo diren arrotzen mesederako egindako ekintzetan, deuseztasun erlatibo edo deseztagarritasun mugatu bihurtzen dela, Jabetza Erregistroan noiz inskribatu eta hurrengo lau urtetan egikaritu behar baita.

Saka-eskubidearen egikaritzeari dagokionez, ondasun tronkal bat arrotz bati besterentzen zaionean, testuak mugatu egiten du hori, hiri-lurzoruan edo lurzoru urbanizagarri sektorizatuan badaude ondasun horiek. Eskubidea egikaritzeko moduak ere, bitarikoak proposatzen ditu testuak, bata, zuzenetik egitekoa eta bestea, iragarkien bidez, bi-biak notarioen fede pekoak, tronkaleko senideei deia egiteko.

Testuak arautzen du, orobat, baserri baten errentariak izan dezakeen eskubidea errentapeko etxebizitza eskuratzeko, kontratuaren indarraldia berrogei urtekoa baino gehiagokoa bada. Euskal baserriaren berezitasuna da hori, finkaren errendamenduan familiaren etxebizitza sartzen baita eta horrek ahalbidetzen du errentariak ere, testuaren 86. artikulua arauturikoaren arabera, lehenespenez eskuratzeko eskubidea.

Modu esanguratsuan batzen da testu honetara Aiara-ko Forua. Tradizioz artikulua bakarrekoa izan ohi da hori. Hemen, berriz, luze-zabal garatzen da, legelari arabarren ekarpenekin, botere osoko gozamenaren araubidea, Aiara-ko modalitateak barne.

Era berean, gipuzkoar baserriaren oinordetzari buruzko arauak garatzen dira testuan. Baserria zer den 96. artikuluan zehazten da eta orobat, eskuratzailen betebeharra, baserriaren xedea gordetzeko.

Oinordetza-itunak hedadura handiz arautzen dira titulu honetan. Kode Zibilaren debekua gorabehera, horrek eragozten zuela oinordekoa izateko ituna, erakundea bizirik zegoen Bizkaian, batez ere ezkontza bidezko itunetan eta debekua ez da arrazoizkoa gaur egun hainbat legelarirentzat. Horrexegatik eman behar zaio arreta berezia eta berme-arauak ezarri horren baitan.



**V**

El título III se ocupa del régimen de bienes en el matrimonio y en su capítulo primero establece un sistema de libre elección, para antes o después de la celebración del matrimonio. Y para el caso de que no haya pacto, regirá el sistema de bienes gananciales regulado en el Código Civil.

Pero en el territorio en que se aplica el Fuero de Bizkaia, establece el capítulo segundo de este título que, siguiendo la tradición, se entenderá que rige entre los cónyuges el régimen de comunicación foral que ya regulaba el Fuero y en virtud del cual se hacen comunes todos los bienes, muebles o raíces, de la procedencia que sean.

**VI**

La disposición adicional primera crea la comisión de Derecho civil vasco como órgano consultivo del Parlamento y Gobierno vascos, con el fin de promover las investigaciones sobre la materia así como la propuesta de modificaciones legislativas.

La disposición adicional segunda extiende a las parejas de hecho, ya objeto de una ley vasca vigente, la aplicación de las normas de esta ley relativas a la vecindad civil y régimen económico supletorio.

La disposición adicional tercera remite las modificaciones tributarias que conllevarán las relaciones jurídicas creadas bajo las instituciones previstas en esta ley, a las competencias normativas en la materia de las que son titulares los órganos forales.

Las disposiciones transitorias precisan las situaciones temporales afectantes a diversas instituciones y a la vecindad civil vasca, que se entenderá automáticamente adquirida por todos los vecinos de la Comunidad Autónoma del País Vasco desde la entrada en vigor de esta ley.

La disposición derogatoria deroga expresamente las leyes 3/1992 y 3/1999 anteriores y cualquier otra que contradiga ésta.

Por último, la disposición final establece la entrada en vigor de esta ley en los tres meses siguientes a su publicación, como plazo prudencial para el cabal conocimiento de sus preceptos por todos los operadores jurídicos.

**TÍTULO PRELIMINAR****CAPÍTULO PRIMERO  
DE LAS FUENTES DEL DERECHO CIVIL VASCO****Artículo 1.– Fuentes jurídicas.**

1.– Constituyen el Derecho civil de la Comunidad Autónoma del País Vasco las disposiciones de esta ley, la costumbre y los principios generales del Derecho que lo inspiran.

2.– La costumbre que no sea notoria deberá ser probada.

**V**

III. titulan barneratzen dira ezkontza bitarteko ondasunen araubidea eta horren lehenengo kapituluak ezartzen da aukera askeko araubidea, ezkontza egin aurretik zein ondoren. Hitzarmerik ezean, Kode Zibilak arauturiko irabazpideen araubidea izango da aginduzko.

Bizkaiko Forua aplikagarri non den eta bertako lurraldean, hala ere, titulu honen bigarren kapituluak ezartzen du ezen, tradizioaren arabera, ulertzen dela ezkontideen artean foru-komunikazioa dela aginduzko, Foruak arautzen zuen bezalaxe, eta horren bidez ondasun guztiak erkide egiten dira, horiek higigarriak edo onibarrak izan, edozein dela euren jatorria.

**VI**

Lehen xedapen gehigarriak Euskal Zuzenbide Zibilaren Batzordea sortzen du. Eusko Legebiltzarraren eta Eusko Jaurlaritzaren kontsulta-organoa izango da eta gaiari buruz ikerketak sustatzea eta lege-aldaketak proposatzea izango du helburu.

Bigarren xedapen gehigarrian izatezko bikoteei hedatzen zaie –bada jada horiei buruzko lege bat indarrean– lege honetan auzotasun zibilari eta ordezeko araubide ekonomikoari buruz dauden arauen aplikazioa.

Hirugarren xedapen gehigarriak hizpide ditu lege honetan aurreikusitako figuren azpian sortutako harreman juridikoek ekarriko dituzten zerga-aldaketak, zeinak esleitzen zaizkien gaian arauketa-eskumena duten foru-organoei.

Xedapen iragankorretan zehazten dira zenbait figurari eta euskal auzotasun zibilari eragiten dieten aldi baterako egoerak. Euskal auzotasun zibila ulertuko da automatikoki eskuratzen dutela Euskal Autonomia Erkidegoko auzotar guztiak lege hau indarrean jartzen denetik.

Indargabetze-xedapenak berariaz indargabetzen ditu aurreko 3/1992 eta 3/1999 legeak eta oraingo lege honekin kontraesanean dagoen beste oro.

Azkenik, azken xedapenak ezartzen du argitaratzen denetik hiru hilabetera jarriko dela indarrean lege hau, epe hori zentzuzkoa baita jardule juridiko guztiak ondo ezagutu ditzaten bertako manuak.

**ATARIKO TITULUA****LEHENENGO KAPITULUA  
EUSKAL ZUZENBIDE ZIBILAREN ITURRIAK****1. artikulua.– Iturri juridikoak.**

1.– Euskal Autonomia Erkidegoko Foru Zuzenbide Zibila osatzen dute lege honen xedapenek, ohiturak eta zuzenbide hori eratzen duten printzipio orokorrek.

2.– Ohitura, nabaria ez bada, frogatu egin beharko da.

## Artículo 2.– La jurisprudencia.

1.– La jurisprudencia depurará la interpretación e integrará los preceptos del Derecho civil vasco.

2.– Por jurisprudencia, a los efectos del Derecho civil vasco, se ha de entender la doctrina reiterada que en su aplicación establezcan las resoluciones motivadas de los jueces y tribunales con jurisdicción en el País Vasco.

3.– La Sala de lo Civil del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco será la encargada de unificar la doctrina que de éstos emane, a través de los recursos pertinentes que en cada momento establezca la legislación procesal.

## Artículo 3.– El derecho supletorio.

1.– En defecto de ley o de costumbre foral aplicable, regirá como supletorio el Código Civil y las demás disposiciones generales.

2.– Las futuras modificaciones de estas leyes se aplicarán cuando no sean contrarias a los principios inspiradores del Derecho civil vasco.

## Artículo 4.– El principio de libertad civil.

De acuerdo con el principio de libertad civil, tradicional en el Derecho civil vasco, las leyes se presumen dispositivas y la renuncia a los derechos de ellas derivados será válida en tanto no contraríen el interés o el orden público ni perjudique a tercero.

## CAPÍTULO SEGUNDO DE LOS PRINCIPIOS INSPIRADORES DE LA LEY CIVIL VASCA

### Artículo 5.– El principio de solidaridad y la función social de la propiedad.

1.– La concepción vasca de la propiedad es modulada por la función social de la propiedad y por el principio de solidaridad.

2.– Junto a la propiedad individual, las leyes ampararán las diversas formas de propiedad comunal, familiar y social peculiares del Derecho civil vasco de forma que las mismas se acomoden a la realidad social del tiempo en que deban ser aplicadas.

### Artículo 6.– La persona.

El respeto y la consideración de la persona inspiran la legislación vasca.

### Artículo 7.– Lenguas cooficiales y Derecho civil vasco.

1.– Los actos y contratos regulados en esta ley podrán formalizarse en cualquiera de las lenguas oficiales de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

2.– Los documentos públicos se redactarán en el idioma oficial del lugar de otorgamiento que los otorgantes hayan convenido, y si hubiera más de uno, en aquél que las

## 2. artikulua.– Jurisprudentzia.

1.– Jurisprudentziak argituko du Euskal Zuzenbide Zibilaren interpretazioa eta integratuko ditu bere aginduak.

2.– Euskal Zuzenbide Zibilaren ondoreetarako, jurisprudentziatzat ulertuko da Euskal Herrian jurisdikzioa duten epaile eta auzitegiek zuzenbide horren aplikazioan emandako ebazpen arrazoituek ezartzen duten doktrina.

3.– Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Zibil arloko Sala arduratuko da aipatutako epaile eta auzitegietatik sortzen den doktrina bateratzeko, legeria prozesalak une bakoitzean hartarako ezartzen dituen baliabideen bitartez.

## 3. artikulua.– Ordezko zuzenbidea.

1.– Legerik edo foru-ohitura aplikagarririk izan ezean, ordezkot moduan aplikatuko dira Kode Zibila eta indarrean dauden gainerako xedapen orokorrak.

2.– Lege horien etorkizuneko aldaketak aplikatuko dira, Euskal Zuzenbide Zibila zein printzipiok eratu eta printzipio horien aurkakoak ez diren neurrian.

## 4. artikulua.– Askatasun zibilaren printzipioa.

Askatasun zibilaren printzipioa, Euskal Zuzenbide Zibilean tradiziozkoa dena, aintzakotzat harturik, legeak esku-emaeleak direla uste izango da, eta legeok eratoritzen dituzten eskubideei uko egitea baliozkoa izango da, interes edo ordena publikoaren aurkakoa ez bada eta hirugarrenari kalterik egiten ez badio.

## BIGARREN KAPITULUA EUSKAL ZUZENBIDE ZIBILAREN PRINTZPIO ERATZAILEAK

### 5. artikulua.– Solidaritate-printzipioa eta jabetzaren funtzio soziala.

1.– Jabetzaren euskal kontzepzioa jabetzaren funtzio sozialak eta solidaritate-printzipioak modulatzeko dute.

2.– Banakako jabetzaz gainera, legeek Euskal Zuzenbide Zibileko jabetza forma berezi desberdinak babestuko dituzte, hots, auzo-jabetza, familia-jabetza eta gizarte-jabetza, betiere aplikatu beharreko aldiko errealitate sozialera egokitu daitezenean.

### 6. artikulua.– Pertsona.

Pertsonenganako errespetua eta begirunea euskal legeriaren oinarri dira.

### 7. artikulua.– Hizkuntza koofizialak eta Euskal Zuzenbide Zibila.

1.– Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialetatik edozeinetan formalizatu ahal izango dira lege honek araututako egintzak eta kontratuak.

2.– Egilesleek egilespen-tokiko hizkuntza ofizialetatik zein hitzartu eta hizkuntza horretan idatziko dira agiri publikoak; eta hizkuntza ofizialak bat baino gehiago izanez



partes acuerden. En caso de discrepancia entre las partes, el instrumento público deberá redactarse en las lenguas oficiales existentes. Las copias se expedirán en el idioma oficial del lugar, pedido por el solicitante.

### CAPÍTULO TERCERO DEL ÁMBITO DE APLICACIÓN DE LA LEY CIVIL VASCA

#### Artículo 8.– Ámbito de aplicación territorial.

La presente ley se aplicará en todo el ámbito territorial de la Comunidad Autónoma del País Vasco, salvo aquellos preceptos en que expresamente se declare su vigencia en un territorio concreto.

#### Artículo 9.– Normas de conflicto.

1.– Corresponde al Parlamento Vasco la delimitación del ámbito territorial de vigencia de la ley civil vasca y, en su caso, las normas de resolución de conflictos internos de leyes, en cuanto subsista dentro del territorio de la Comunidad Autónoma del País Vasco la pluralidad legislativa.

2.– A falta de normas especiales, los conflictos de leyes a los que dé lugar la coexistencia de varios ordenamientos jurídicos se resolverán de acuerdo con las normas de carácter general dictadas por el Estado, atendiendo a la naturaleza de las respectivas instituciones.

3.– Los conflictos locales entre normas vigentes en algunos territorios, o entre dichas normas y las generales de la Comunidad Autónoma del País Vasco, se resolverán también por las disposiciones del Código Civil, sin perjuicio del principio de territorialidad en materia de bienes troncales.

#### Artículo 10.– Ámbito de aplicación personal.

1.– El Derecho civil de la Comunidad Autónoma del País Vasco se aplica a todas aquellas personas que tengan vecindad civil vasca.

2.– La vecindad civil vasca o la vecindad civil local cuando sea preciso aplicarla, se adquieren, se conservan y se pierden conforme a las normas contenidas en el Código Civil, sin perjuicio del principio de territorialidad en materia de bienes troncales.

3.– Las normas de Derecho civil de esta ley que rigen con carácter especial en el territorio histórico de Bizkaia y en los términos municipales alaveses de Aramaio y Llodio se aplicarán a quienes tengan vecindad civil local, aforada o no, en dichos territorios.

#### Artículo 11.– Constancia de la vecindad civil.

En los instrumentos públicos que se otorguen en la Comunidad Autónoma del País Vasco se hará constar la vecindad civil vasca y la vecindad civil local del otorgante y cuando pueda afectar a las disposiciones que se otorguen o sus efectos, también el régimen de bienes que rija

gero, alderdiek aukeratutakoa erabiliko da. Alderdien artean desadostasuna gertatuz gero, agerkai publikoa bertako hizkuntza ofizial guztietan idatzi beharko da. Tokiko hizkuntza ofizialetatik eskatzaileak zein aukeratu eta hizkuntza horretan luzatuko dira kopiak.

### HIRUGARREN KAPITULUA EUSKAL ZUZENBIDE ZIBILAREN APLIKAZIO-EREMUA

#### 8. artikulua.– Lurralde-aplikaziorako eremua.

Lege hau Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde-eremu osoan aplikatuko da, salbu eta manu zehatzek berenberegiri adierazten dutenean manu horiek lurralde jakin batean bakarrik daudela indarrean.

#### 9. artikulua.– Gatazka-arauak.

1.– Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldean legeria-aniztasunak indarrean dirauen artean, Eusko Legebiltzarri dagokio Euskal Lege Zibilaren indarraldirako lurralde-eremua mugatzea, eta, hala badagokio, barne-gatazkak konpontzeko arauak ezartzea ere bai.

2.– Arau berezirik izan ezean, zenbait antolamendu juridiko aldi berean izateak lege-gatazkak eragiten dituzte, gatazkak konponduko dira Estatuak emandako arau orokorren bidez, kasuan kasuko erakundearen izaera kontuan harturik.

3.– Tokiko gatazkak gertatzen direnean lurralde batzuetan indarrean dauden arauen artean, edo gatazkak gertatzen direnean arau horien eta Euskal Autonomia Erkidegoko arau orokorren artean, gatazkak konponduko dira Kode Zibilaren xedapenen bitartez, betiere ondasun tronkalen arloan indarrean dagoen lurraldetasun-printzipioari kalterik egin gabe.

#### 10. artikulua.– Aplikazio pertsonalerako eremua.

1.– Euskal Autonomia Erkidegoko Zuzenbide Zibila aplikatzen zaie euskal auzotasun zibila duten pertsona guztiei.

2.– Euskal auzotasun zibila, edo bestela tokiko auzotasun zibila hori aplikatu behar denean, Kode Zibilaren arauekin bat etorritik eskuratu, irauarazi eta galdu egiten da, betiere ondasun tronkalen kasuan lurraldetasun-printzipioari kalterik egin gabe.

3.– Lege honek Zuzenbide Zibileko arauak jasotzen dituela kontuan hartuta, halako batzuk arau berezi moduan indarrean badaude Bizkaiko lurralde historikoan, eta Llodio eta Aramaioko udaletan, orduan lurralde horietan tokiko auzotasun zibila dutenei aplikatzen zaizkie arauok, forudun izan zein ez.

#### 11. artikulua.– Auzotasun zibilaren egiaztapena.

Euskal Autonomia Erkidegoan egiletsitako agerkai publikoetan, egiletslearen euskal auzotasun zibila eta tokiko auzotasun zibila agerraraziko dira; eta agerrarazi beharko da, halaber, egiletslearen ezkontzari edo izatezko bikoteari zein ondasun-araubide dagokion, horrek eragina izan

su matrimonio o pareja de hecho. En caso de duda, se presumirá, salvo prueba en contrario, que la vecindad civil es la que corresponda al lugar del nacimiento, y el régimen de bienes, el que se considere legal en el último domicilio común, y, a falta de domicilio común, el del lugar de celebración del matrimonio o el de separación de bienes si se trata de parejas de hecho.

## TÍTULO I DE LOS PRINCIPIOS DE DERECHO PATRIMONIAL

### Artículo 12.– El caserío.

El caserío es una explotación agrícola o ganadera familiar constituida por una casa de labor, con diversos elementos muebles, semovientes, derechos de explotación, maquinaria, instalaciones y una o varias heredades, tierras o montes. Estas tierras o heredades pueden o no estar contiguos a la casa de labor y reciben la denominación de pertenecidos del caserío.

### Artículo 13.– El arrendamiento rústico.

El contrato de arrendamiento rústico posee en la tradición vasca características especiales en cuanto a la estabilidad del arriendo, la transmisión del derecho del arrendatario y otros aspectos que, al margen de las disposiciones de esta ley, justifican que sea regulado en una ley especial.

### Artículo 14.– La servidumbre de paso.

1.– La servidumbre de paso se adquiere en virtud de título o por la prescripción de veinte años.

2.– El dueño del predio dominante podrá exigir, mediante la correspondiente indemnización, que se dé mayor anchura a la servidumbre de paso, en la medida suficiente para cubrir todas las necesidades de dicho predio.

3.– El dueño del predio dominante está también facultado para realizar a su costa las obras de afirmado que considere convenientes para su mejor utilización, y que no perjudiquen la explotación del predio sirviente, notificándolo previamente al dueño de éste.

### Artículo 15.– Derecho de cierre de heredades y servidumbre de paso.

El propietario tiene el derecho de cerrar la heredad que posee, pero no puede impedir el paso de los particulares para su uso no lucrativo, siempre que no utilicen vehículo alguno. Quien utilice este derecho deberá respetar los cultivos e indemnizar los daños, si los causare.

badezake egiletsitako xedapenen gainean edo xedapen horien ondorioen gainean. Zalantza izanez gero, eta kontrakoa frogatu ezik, uste izango da auzotasun zibila dela jaiotza-lekuari dagokiona, eta ondasunen araubidea dela, ezkontideen azken egoitza erkidea non izan eta bertako lege-araubidea; eta, ezkontideek egoitza erkiderik izan ezean, ezkontza non egin eta bertakoa, edo, izatezko bikoteen kasuan, ondasunen banantze-araubidea.

## I. TITULUA ONDAREARI BURUZKO ZUZENBIDEAREN PRINTZIBIOAK

### 12. artikulua.– Baserria.

Baserria, izatez, familiaren ustategia da, nekazaritzaren arlokoa nahiz abeltzaintzaren arlokoa; ustategi hori eratzen dute landetxeak berak, eta, horrekin batera, osagai higitarrak desberdinek, abelburuek, ustiatze-eskubideek, makineriak, instalazioek, eta, orobat, landa, lursail edo mendi batek edo batzuek. Lursail edo landa horiek landetxearen ondoan egon daitezke edo horretatik aparte, eta, halakoak izendatzeko, baserriari dagozkion lurra direla esan ohi da.

### 13. artikulua.– Landa-errentamendua.

Landa-errentamenduaren kontratuak, euskal tradizioan, ezaugarri bereziak ditu, errentamenduaren egonkortasunari, errentariaren eskubidea eskualdatzeari eta bestelako alorre dagokienez; horiek guztiek justifikatzen dute, lege honen xedapenetatik kanpo ere, errentamendu hori lege bereziaren bitartez arautzea.

### 14. artikulua.– Bide-zorra.

1.– Bide-zorra eskuratzen da, tituluaren bidez edo hogeiterteko preskripzioaren bidez.

2.– Lur nagusiaren jabeak galdatu ahal izango du, kalte-ordain egokiaren bitartez, bide-zorrari zabalera handiagoa ematea, lur horren beharrezkoak asetzeko beharrezkoak den neurrian.

3.– Lur nagusiaren jabeak ahalmena du, orobat, bere kontura zoruan sendotze-lanak egiteko, baldin eta lan horiei komenigarri baderitze lurra hobeto erabiltzeko, eta lanekin ez bazaio kalterik egiten zorpeko luraren ustiatzeari; horretarako, alde zuzenetik jakinarazpena egin behar zaio zorpeko luraren jabeari.

### 15. artikulua.– Landak ixteko eskubidea eta bide-zorra.

